

**Ebazpena: R 2/2023**

**Espedientea: 28/2014**

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urtarrilaren 27an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek. Eta honakoa erabaki dute:

## **ERABAKIA**

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioeko Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita ISASL zergapekoaren zerga-egoitza zehaztea, 2002ko abenduaren 23ra arteko atzeraeraginezko ondoreekin. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 28/2014 espediente-zenbakiarekin.

## **I. AURREKARIAK**

1.- ISASL telekomunikazio-operadore bat da, eta haren jarduera da telekomunikazio-zerbitzu aurreratuen eta informazio-teknologiaren handizkako eta txikizkako merkaturatzea, salerosketa, inportazioa eta esportazioa, garraioa eta banaketa.

% 50eko bi bazkideak JSFM jauna eta AFG jauna dira.

Administratzaile bakarra JSFM jauna da.

2.- Obligazioduna 2002ko abenduaren 23an eratu zen, eta egoitza soziala Madrilen zuen.

2003ko maiatzaren 22an, egoitza soziala Madrilgo beste kale batera aldatu zuen.

3.- 2014ko otsailaren 14an, egoitza soziala eta zerga-egoitza Bilbora (Bizkaia) aldatu zituen.

4.- 2013ko uztailaren 22an, administratzaile bakarrak obligaziodunaren zerga-egoitza ofizioz zuzentzeko eskatu zion BFari, eraketa-datara arteko atzeraeraginezko ondoreekin.

5.- 2014ko otsailaren 12an, ZAEari zerga-egoitza aldatzea proposatu zion BFAk (2013ko abenduaren 18ko txostenean oinarrituta, 2013ko urriaren 3ko eta azaroaren 15eko egitateak jasotzeko eginbideetan deskribatutako inguruabarrak kontuan hartuta egina), eta ZAEAk proposamena ezetsi zuen 2014ko uztailaren 21ean.

6.- 2014ko uztailaren 24an, BFAk Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordean aurkeztu zuen gatazka. Ohiko prozeduraren bidez izapidetu da, eta hasierako eta amaierako alegazioen izapidetak egin dira, hurrenez hurren, hilabeteko epean, ZAEAk alegazio-idazkirik egin gabe.

## **II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

### **1.- Batzordearen eskumena**

Arbitraje Batzordeak gatazka hau ebazteko eskumena du, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek adierazten du

Arbitraje Batzordearen funtzioa dela zergadunen egoitza dela-eta sortzen diren eztabaidak ebaztea.

**2.-** Obligaziodunaren helbideratzean kontuan hartu behar diren irizpen-elementuak.

Zerga-egoitza erabat faktikoa den heinean, alderdiek *egiaztatu dituzten* egitatezko inguruabarrak laburbilduko ditugu, eta, ondoren, horien guztien balorazio juridiko bateratua egingo dugu zerga-egoitza zehazterakoan, sozietatearen eta haren jardueraren ezaugarriak kontuan hartuta.

Auzitegi Gorenaren 2015eko ekainaren 18ko epaiak (ECLI:ES:TS:2015:2707) adierazten duenez, indarrean egon ez arren, eta indarrean dagoen araudian *administrazio-kudeaketaz eta negozioen zuzendaritzaz* zer ulertu behar den definitzerik ez dagoenez, nolabaiteko interpretazio-indarra mantentzen dute 2631/82 Errege Dekretuaren bidez onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 22. artikuluan jasotako irizpideek. Artikulu horrek honako hauei ematen zien garrantzia: zuzendaritza garatzeko administratzaile edo kudeatzaile kopuru egokia bizi diren tokia, kontratazio arrunta egiazta daitekeen bulego baten tokia, eta kontabilitatea eramaten den eta eragiketa sozialak behar bezala egiaztatze eta balioesteko behar den dokumentazioa biltzen den tokia.

BFAk baieztatzen du administratzaileak Getxon (Bizkaia) duela helbidea, baina ez du horren frogarik aurkeztu, bereziki bizileku horretan noiztik dagoen.

BFAk adierazi du kontratazioa, oinarrizkoa ez den kontabilitatea, zerga-aitorpenak eta abar Bilbon eraman eta gordetzen direla, nahiz eta batzuetan Madrilgo egoitza egon jasota.

**3.-** Zerga-egoitzari buruzko balorazio juridikoa.

**3.1.-** Lehenik eta behin, nabarmendu behar da lotura dagoela egoitza aldatzeko prozedura honen eta OTOPSLri dagokionez aplikatutako prozeduraren artean (horri dagokionez planteatu da 14/2013 gatazka).

**3.2.-** Hala ere, OTOPSLren egoitza aldatzeko prozeduran ZAEAk bazuen frog bat, zeina zerga-egoitzara egindako 8 bisiten ondorioz lortu baitzuten ikuskapen-prozedura izapidetu bitartean. Ostera, prozedura honetan ez du frog garrantzitsurik, eta egoitza aldatu nahi den ekitalditik urte batzuetara egindako edozein bisitak oso balio erlatiboa izango luke.

Hori dela eta, prozedura honetan, ZAEAk ez du alegaziorik egin, eta, ondorioz, BFAk egoitza aldatzeko proposamenari emandako erantzunean baino ez daude jasota haren adierazpenak.

Bertan alegatzen da administratzailearen egoitza ez dagoela Bizkaian (edo, behintzat, ez dela bertan kokatu eztabaida izan den urteetan), zerbitzuak Madrilen ematen dituzten zenbait langile daudela, eta dokumentu ugaritan (batez ere fakturak) Madrileko helbideren bat dagoela jasota.

Dena den, azpimarratu den bezala, ZAEAk ez du bisitatu Madrileko egoitza sozialaren helbideetako bat bera ere, eta, beraz, ezin izan du egiaztatu merkataritza-, kontabilitate- eta zerga-dokumentazioa eraman edo gorde duela, ezta enplegatuek zerbitzuak benetan eman dituztela ere, etab.

Era berean, ZAEAk ez du bere iritzian sakondu, ez hasierako alegazioen fasean, ez amaierako alegazioen fasean.

**3.3.-** Ondorioz, BFAk aurkeztutako frog eztabaidaezina izan ez arren, eta neurri handi batean urte batzuk geroago egindako bisita baten ondorioa izan arren, eta

obligaziodunaren aurretiazko eskaera baten eskariz, baliozkotzat jo besterik ezin dugu egin, obligaziodunaren deslokalizazioaren arrazoizko zantzua delako.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

### **ERABAKI DU**

- 1.- Obligaziodunaren zerga-egoitza eratu zenetik Bizkaian dagoela adieraztea.
- 2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatuko Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta ISASLri.